

# Hitzaurrea

JOXE AZURMENDI\*

Adibide nahiko abstraktu batekin hasiko gara:

- «Non dago Jon?»
- «Ikusten duzu han, harako auto gorri hura?»

Hitzez hitz hartuz gero, ez du zentzurik, irrazionala da. Maiz esan ohi dugun eran: «Nondik zatoz?», «Sagarrek dakartzat». Hau da, itxuraz -semantika mailan- bi esaldi horien segidak inolako zentzurik ez du ematen. Galdera bati beste galdera batek erantzuten dio. Are, bi galderetako terminoek ez dute elkarrekin zerikusirik, koherentziarik. Perpaus konposizio itxuragabea da. Ez garamatza inondik inora.

Hobeto analizatzen badugu, ordea, bi esaldi dagoela hor, erreparatzen dugu. Alegia, hizkuntza dago, eta elkarrizketa dago. Beraz, komunikazioa, nolabait; bi subjektu konkretu, elkarrekiko postura eta harreman asmo batean, hots, batak besteari galdera egiteko eta agian erantzuteko jarreraren hain zuzen; eta, itaun mailan gutxienez, elkar aditzekoan. Elkarren onarpenetik

\*Filosofoa, beste hainbat lanen artean *El Hombre Cooperativo. Pensamiento de Arizmendiarieta* liburuaren egilea.

hasi eta, jarrera soil horrek, aurretiazko hainbat exigentzia eta arau, logiko ezezik, etiko inplikatzan ditu, horiek bideratzen baitute solaskideek bata-bestearen esanei interpretazio «kooperatibo» bat nola eman, hitzen esanahi mekaniko hutsetik harago, zentzu bat atzemateko (hau da, sortzeko) moduan. Horrela, «ikusten duzu han, harako auto gorri hura?» berben semantika soilean ez dagoena ulertzen du solaskideak: «hantxe dago Jon». Eta «nondik zatoz?», «sagarra dakartzat», adieraz guztiz naturaleko elkarrizketa bihurtzen da: «sagarra nahi zenituela, esan duzu lehen, baina astirik ez duzula dendara joateko: begira, bada, hementxe dakarzkizut».

Adibide hau esaldiaren esanahi edo adiera doi-doi pragmatikoa dela, erakusteko, erabiltzen da. Eta linguistikari «kooperazioaren printzipioa» deitzen zaio (H.P. Grice). Elkar ulertzea -zetzua- kreaio kooperatiboa da.

Ez da linguistikako printzipioa bakarrik. Jolasa kooperazioak egiten du. Giza ihardun orotan -elkarrizketan bezala kirolean eta lanean edo gerran- kooperazio elkar osagarriaren ekoizpena da beti giza razionaltasuna.

Gizon-emakumea abere razionala dela, errepikatu ohi dugu; eta, zehazkiago, abere razional eta politikoa, Aristoteles-en definizio klasikoak irakasten digunez. Zer da abere razional bat, edo abere politikoa bat? Bi adjektiboen beharbada ez da oso gauza diferenterik adierazi nahi.

-*Politikoa* soziala esan gura du. Hau da, taldekoa. Baina familia baino talde konplexuago, «eznatural»agokoa; partaideen arteko interesak eta harremanak hitzarmen eta lege bitartez arautzen dituen elkargokoa. Hori baita «Polis» edo herria. Gizon-emakumea bere izaeraz ez da bakartia. Taldeko aberea da. Baina, taldekoa, ez instintuaren eta naturaren mailan bakarrik, ez instintuak eta naturak bera taldekoa egiten duten heinean bakarrik, pasiboki (familia hori izan liteke); baizik eta, gizon-emakumeak berak kulturalki eta razionalki burutzen dituen «gizarte»etako, elkarbizitza horrek eskatzen dituen balio sistema, printzipio, lege, harreman arau eta jendetasun forma guztiekin. Polis diferentek egon litezke, baina edozein Polisek kooperazio sistema konplexu razional bat suposatzen du: elkarbizitzaren oinarri etiko bat eta harremanen arauketa politikoa.

-*Razionala*: Aristoteles-ek zehazki «logon ejon» (logos daukana) esaten du. «Logos», nahi baduzu, arrazoia da, bai. Baina ez buruan makina txiki bat; baizik zernahiri buruz solasean, dialogoan ematen dugun arrazoia edo esplikazioa. Esentzia ezkutu bat baino gehiago, praktika bat da, Aristoteles-ek hor begiesten duena. Beraz, razionala baino hobeto, beharbada «solasten dena», «dialogatzen duena», itzuli beharko genuke. «Hizkuntza daukana». «Logos», hasteko, hitza da («Hasieran Hitza zen»: logos). Gizon-emakumea esplikazioak -arrazoiak- ematen eta hartzen, eztabaidatzen, onesten eta gaitzes-

ten dituen aberea da. Dialogo horren emaitza da «politika», Polisa (dialogotik dator dialektika!); eta dialogo hori ahalgarritzea izango da, gero, Polisaren zeregina.

Horrela ulertu dizu Arizmendiarrietak gizon-emakumeon abere razionalak izatea, irakurleak laster ikusi ahal izango duenez eskuartean duen idazki honetantxe. «Gizakia izaki komunitarioa da», irakurriko du. Gaur asko goratzen dira indibiduo eta indibiduoaren eskubideak. Baina eskubideak ezer ez dira erantzukizunak gabe. Eta eskubideak nahiz erantzukizunak, gure izaera komunitarioari dagozkio. Aurrenekoa, hori ongi ulertzea eta gure buru-bihotzetan sakon errotzea da; hots, gizakia bere egiazko izaeran, berez bukatua ez den, baina askatasun eta duintasunerako bidean jartzen duen izaera (elkarren osagarri) horretan, ezagutzea eta errespetatzea. Komunitatean iristen gara nor izatera, geure burua burutzer. Jolasean nahiz lanean, elkar osatzen dugu. Geure zer garen izate edo existentzia soilean ere: zahar/gazteak, gizon/emakumeak, karakter eta gustu ezberdinak, etab., elkarren osagarriak gara. Zer esanik ez, irakasle/ikasleak, produzi/kontsumitzaileak, etab. Elkar egiten eta elkar osatzen dugu.

Elkar osatzen dugulako gara gizon-emakumeok gizartea, gizarteak gizadia, gizadia bere buruaren kreaizio etengabea belaunaldiz belaunaldi (belaunaldiek elkar osatzen dutelako dago historia). Gero, izaera honi dagozkion erako antolaketa «kooperatiboak» praktikan martxan jartzea tokatzen da, lanean, salerosketan, etxean, herrian, munduan –mailaz maila, kolektibitateak komunitate bihurtuz joateko. Kooperatibismoa proiektu handi (azkengabe) horixe da. Eta kooperatibismo Arrasateko edo arizmenditarra, saio apal bat edo «esperientzia bat», Arizmendiarrietak berak esatea gusto zuenez, proiektu handi horren barruan.

Izan ere, gizakia komunitarioa da: baina ez komunitatean -Estatuaren azpian, nazioan edo klase sozialean- urtu eta galtzeko, ur tanta bat putzuan bezala, kolektibismo totalitarioak zurrupatua adibidez, edo «pentsamendu bakarrak» despertsonalizatua. Ezta azokan merkaduria anonimo bat bezala, edo masaren erdian bere bakardadean gelditzen den zenbakitxoa ere.

Arizmendiarrietaren pentsamendua borroka bat eta oreka bat da bi muturren aurka, inoiz iritsi gabe sistema bat bere baitan itxia izatera bien artean, etengabeko gogoeta, egokitapena: alde batean liberalismo indibidualista, horrentzat gizartea -teorian, bederen, gizatasun kontzeptuaren mailan- norbanakoen multzoketa besterik ez bailitzateke izango. Indibiduo bakoitzak libre izan behar du, nahi duena egiteko; hau da, funtsean, nahi duena eta nahi duen bezala produzitzeko, horrela besteak esklabotzen baditu ere. Gizarteak -Estatuak- ez dio trabarik ipini behar ekimen indibidual askeari. Bakoitza libre izanez (azokan!, pentsamendu honentzat askatasunaren espazio propioena azoka baita), azkenean guztien onura eta aurrerapena lortuko omen da.

Joera honen ideia nagusia askatasuna da. Hemen Arizmendiarieta, liberalismoaren aurka, «kolektibistekin» dago, komunista eta sozialistekin. Hauen ideia nagusia justizia da. Askatasun liberalak injustizia baitakar, gutxienez XX. mendeko Alderdi sozialista eta komunista handiek, indibiduoaren lehentasun haren aurka, Estatuaren lehentasun kolektibista aldarrikatu dute, gizartearen justizia egitearren. Gizartearen interesak eta Estatu identifikatzaera jo izan dute hauek. Kolektibismo honen aurka dago halaber Arizmendiarieta. Lehenengo eta behin, Arizmendiarietak uko egiten dio alternatiba hartan atrapatuta geratzeari: bere ideia justizia eta askatasuna adostea da; eta, gero, Estatu indartu ordez, komunitatea indartzea eta burujabe bihurtzea maila guztietan, eskolatik lantegira eta auzotik eskualdera. Kolektibistekin ere kritikoa da hortaz. Gizakia gizartean ez da zenbaki soil bat -beste mila bezalakoxea-; pertsona da -bera bakarrik bezalakoa eta bakarra munduan-. Bai liberalismoan eta bai kolektibismoan, azkenean pertsonarik gabe geratzen gara: han, indibidua komunitaterik gabe dagoelako; eta hemen, komunitateak indibidua ito egiten duelako. Bien ondorioak ikaragarriak izan dira historian. (Arizmendiarietak batez ere bi Mundu Gerretan pentsatzen du). Horregatik, komunitarismoaren kontzeptua pertsonaren kontzeptuaz osatzen da; bi kontzeptuok elkarrekin batera ulertu behar dira. Arizmendiarietak bere leku teorikoa bai liberalismoaren eta bai kolektibismoaren aurka doitu behar izan dizu hortaz.

Hala ere, engainatu egingo ginateke, batzuk eta besteak kritikatu dituelako, zentzu berdinean kritikatu dituela batzuk eta besteak, usteko bagenu; eta, horrela, pentsamendu deskoloratu neutraltzat joko bagenu harena kapitalismo eta sozialismoaren aurrean. Ez, Arizmendiarieta ez da neutrala. Liberalismoaren aurka eta sozialismoaren alde dago. Iraultza burgesaren ondoren liberalismoa (kapitalismoa) gainditzeko asmotan Europa osoan sortu den mugimendu edo inspirazio sozialistan kokatzen da osoki, marxismo, sozialismo «utopiko», «guilds socialism» eta laborismo, anarkismo, sindikalismo eta abarrekin batera. Sozialista da, hortaz, baina jatorrizko zentzuan: oraindik «sozietatea» zenean aurreneko kontzeptua (indibiduoaren aurrez aurre), eta ez Estatu. Hain zuzen, «sozialista» hitza bera kooperatibistek asmatuakoa da, «komunionista»ren sinonimo bezala, beren buruen horrela izendatzeko (R. Owen-en «Co-operative Magazine»n erabili da «sozialista» hitza estrainako aldiz historian, 1827ko azaroan). Pentsamendu sozial europarreko tradizio handi batean dago, beraz, Arizmendiarieta, bere «esperientziaren» gogoetarekin.

Eta euskal tradizio zahar handi batean dago halaber. Euskal Herrian tradizio komunitarista (herri lur eta larre komunalak, «bildots-lorra», «zur-lorra»)

<sup>1</sup> Ik. Ignazio OLABARRI, «Tradiciones cooperativas vascas», in: INTXAUSTI, J. (arg.), *Euskal Herria - Historia eta Gizartea / Historia y Sociedad*, Lan Kide Aurrezkoa / JAKIN, bol. I, 1985, 298-307.

eta elkarlanaren kultura («auzolana», arrantzale eta nekazarien kofradiak, etab.) aspaldidanoak baititugu<sup>1</sup>. Baina Euskal Herriko lehenengo kooperatiba modernoa -koooperatibaren gaurko adieran- 1884ean Barakaldon sortu zen, patronalak sortua, Labe Garaietako langile industrialen kontsumoko kooperatiba. Nekazarien lehenengo kooperatiba Araban antolatu da 1905ean. Nafarroan aurreneko kooperatiba, nekazari munduan sortua bai, baina «Caja Agrícola de Tafalla» izan da, 1902an Atanasio Mutuberriak sortua. Eta urte berekoa da Gipuzkoako lehena ere, Donostiako «Danok-Bat». Beraz, XIX.mendearen bukaeran eta XX.ren hasieran abiatu da mugimendu kooperatiboa Hego Euskal Herrian, eta berehala hartu du indar handia. Iparraldean mugimendu kooperatiboa beranduago abiatu da, baina gaur egun bizia eta interesgarria da laborantzan hala industrian.

Kooperatibismoa ez da arazo batzuen soluzio praktiko oportunistak bat bakarrik (batzuetan horixe ere izan daitekeela ukatu gabe). Historian ikusita, kooperatibismoa hori baino askoz gehiago da eta gehiago izan gura du. Arizmendiarrietaren ekarpena azaltzen dizun liburu honetan oso ongi erakusten da, haren kooperatibismoa, erostegi eta fabrika material batzuk baino barrenago, zertan datzan egiaz:

1. Pentsamendu bat da, filosofia bat, espiritu bat, eta
2. Eraldaketa proiektu bat

Mundua eraldatu nahi dugu (geure mundu txikitik hasita). Jakin, badakigula zer egin behar den, baina ezin dugula, pentsatzeko joera izaten dugu. Jeneralean, ez digutela uzten, aitzakiarekin. Baina ez da izaten egia. Inork ez dakigu «mundua nola konpondu». Mundua -zorionez- aski korapilatsua da, soluzioak ez dira inoiz azkenbetikoak izaten, gogoetak ere ez, gure arazoan irtenbideak behin eta berriro probatzen eta ikusten joan beharra daukagu, beti ikasten. «Bizitzaren legea da egokitzen asmatzea», Arizmendiarrietak esango ligukeenez. Kooperatibismoak bere enpresetako soluzio pragmatikoak birpentsatuz jarraitu behar du: baina bere gogoeta teorikoa ere bai. Bere liberalismoaren kritika, pertsonaren kontzeptua, lanaren filosofia, komunitatearen esperientzia eta zentzua. Mundua aldatuz badoa, gogoetak ere aldatuz joan behar du. Ezer ez dago betiko eginda. Eta, gutxien gutxiena, pentsamendua.

Horregatik, liburu honetan eskaintzen den Arizmendiarrietaren pentsamendua, abiapuntua da. Zuregandik jarraipena itxaro duen -behar duen- gogoeta etengabearen abiapuntua.